

Mugi muga: gazteen nortasun politikoak mugaren bi aldeetan



Zerk eragiten du gure nortasun politikoen egituraketan? Eta nazioa ulertzeko prozesuan? Ezberdintasunik badago testuinguru soziologikoaren arabera? Galdera hauei eta beste askori erantzuna eman nahian bazabiltza, hartu parte Uda Ikastaro honetan.

Uzt. 03 2025

Kod. G17-25

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2025

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 03 2025

Kokalekua

Cité des Arts. Baiona

Hizkuntzak

Euskara Frantsesa

Balio akademikoa

10 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Etengabeko aldaketak bizi ditugun garai honetan, eta Uda Ikastaro honen bidez, agentzia duten gazte aktibistek beraien nortasun politikoa eta nazio identitatea zergatik eta zertan oinarritzen duten eztabaidatu nahi da, bereziki Euskal Herrian diharduten ekintzaileengan arreta ipiniz.

Gazterian nahiz lurraldeko ibilbide politikoan adituak direnen hitzaldien bidez, egungo ikerketek gaiari buruz zer dioten ezagutu eta honen bueltan aritzeko aukera izango da. Zentzu horretan, Euskal Herriko Garapen Kontseiluarekin lankidetzan eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzarekin, Euskal Herriko Unibertsitatea jorratzen ari den ikerketaren emaitzak ezagutzeko aukera izango da.

Azkenik, ikerketako eta saioko protagonistak diren gazte aktibisten arteko solasaldia prestatu da, ikerketako elementu eta ondorioez zuzenean hitz egiteko aukera eskainiz.

Helburuak

Gazteen politizazio dinamiken azterketa lantzea.

Ipar Euskal Herriko nortasun abertzalearen egitura ezagutzea.

Programa

2025-07-03

09:00 - 09:15	Erregistroa
09:15 - 09:30	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Iñaki Zaldua Calleja Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) - Ikertzailea
09:30 - 10:30	“Mugi Muga: Euskal Herriko gazteen politizazio eta nortasunen egituraketa aztergai. Aurrekariak eta gogoetak” Maddi Alberdi San Martin Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) - Ikertzailea Alaia Cachena Université Toulouse Jean Jaurès - Ikertzailea
10:30 - 11:00	Atsedena
11:00 - 12:30	“Sozializazio politikoaren bideetan arakatzen. Gazteen politizatzeko prozesuen zenbait eragile Hego Euskal Herrian. “ Ane Larrinaga Renteria Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) - Irakasle-ikertzailea
12:30 - 13:30	Bazkalordua
13:45 - 15:15	“Ipar Euskal Herriko gizarte zibilaren politizazio anitzak : ikuspegi sozio-historiko bat” Xabier Itçaina Centre Émile Durkheim, Sciences Po Bordeaux - Ikerketa-zuzendaria
15:30 - 16:45	Mahai ingurua: “EGazte aktibisten esperientziak mugaren bi aldeetan” Elena Casiriain Iturriria Euskal Herriko Garapen Kontseilua - Ikertzailea (Moderatzailea)
16:45 - 17:00	Itxiera Sintesi saioa Iker Iraola Arretxe Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) - Irakasle-ikertzailea

Zuzendaritza



Iker Iraola Arretxe

Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

Soziologian doktorea, EHUKo Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko irakasle agregatua, eta Parte Hartuz ikerketa-talde egonkortuko kidea. Bere ikerketa ildo nagusiak: nazionalismoa, migrazioak, gizarte mugimenduak, gazteria eta politika, eta herritartasuna. «Mugi Muga: Euskal Herriko gazteak saretzen» (Ideiak 2024/Gipuzkoako Foru Aldundia) ikerketa-proiektuko ikertzaile nagusia da. Gazteria eta politikaren arteko harremanei loturiko ondoko argitalpenen egilea da, lankidetzan: «Prefigurative politics and sub-state nationalist movements. The case of young Basque-nationalist left activists» (2025), «Ikasketa politikoa, parte-hartzea eta aktibismoa gazteen ahotsetan» (UEU, 2024), «Parte hartu ala paso egin? Gazteen ikasketa politikoak aztergai» (2020), beste batzuren artean.



Jon Azkune Torres

EHU

Irakasle-ikertzailea. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). Leioa.


Irakasleak



Maddi Alberdi San Martin

EHU, Doktoregaia

Doktoregaia EHUko Soziologia eta Gizarte Langintza sailean eta Parte Hartuz Ikerketa Taldeko kidea. Tesia egiten nazionalismoaren eta feminismoaren inguruan, Eusko Jaurlaritzako doktorego aurreko laguntzari esker. Mugi Muga: Euskal Herriko gazteak saretzen» (Ideiak 2024/Gipuzkoako Foru Aldundia) ikerketa-proiektuko ikertzailea.



Alaia Cachenaute

Antropologiako doktoregaia, LISST-CAS eta UMR Passages laborategietako kidea, bere ikerketak Euskal kultur erakundearekin egin CIFRE bekaren kari eraman ditu. Kultura eskubideen gaia Euskal Herrian Uztaritzeko kaskarotetan izan nesken integrazioaren kasuari esker aztertzen du. "Mugi Muga: Euskal Herriko gazteak saretzen» (Ideiak 2024/Gipuzkoako Foru Aldundia) ikerketa-proiektuko ikertzailea.



Elena Casiriain Iturriria

Antropologian doktoregaia, Toulouse-eko Jean Jaurès Unibertsitatean LISST-CAS ikerketa taldean eta EHUUn GAIT ikerketa taldean. Misio karguduna Cifre kontratupean Garapen Kontseiluan. Ikerketa proiektuak: - Mugalur proiektuaren koordinatzaile eta ikerleetako bat (Garapen Kontseilua, Cederna-Garalur, EHU eta NAEN Euroeskualdea). - "Euskal Nortasunak XXI. mendera begira: 2050" ikerketa proiektuan ikerlea (Eusko Ikaskuntza) - «Mugi Muga: Euskal Herriko gazteak saretzen» (Ideiak 2024/Gipuzkoako Foru Aldundia) ikerketa-proiektuko ikertzailea.



Iker Iraola Arretxe

Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

Soziologian doktorea, EHUko Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko irakasle agregatua, eta Parte Hartuz ikerketa-talde egonkortuko kidea. Bere ikerketa ildo nagusiak: nazionalismoa, migrazioak, gizarte mugimenduak, gazteria eta politika, eta herritartasuna. «Mugi Muga: Euskal Herriko gazteak saretzen» (Ideiak 2024/Gipuzkoako Foru Aldundia) ikerketa-proiektuko ikertzaile nagusia da. Gazteria eta politikaren arteko harremanei loturiko ondoko argitalpenen egilea da, lankidetzan: «Prefigurative politics and sub-state nationalist movements. The case of young Basque-nationalist left activists» (2025), «Ikasketa politikoa, parte-hartzea eta aktibismoa gazteen ahotsetan» (UEU, 2024), «Parte hartu ala paso egin? Gazteen ikasketa politikoak aztergai» (2020), beste batzuren artean.



Xabier Itçaina

Centre Emile Durkheim, Directeur de recherche CNRS

Ikerketa-zuzendaria. Centre Émile Durkheim, Sciences Po Bordeaux



Ane Larrinaga Renteria

Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU), Irakasle agregatua

Ane Larrinaga Renteria Soziologian eta Zientzia Politikoetan doktorea da, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) irakasle-ikertzailea, eta Parte Hartuz ikerketa taldeko kidea. Bere ikerketa-ildo nagusiak hizkuntza-kultura, etnizitatea-nazionalismoa, generoa eta partaidetza politikoa izan dira. Gai horien inguruan hainbat artikulu zientifiko eta liburu idatzi ditu.



Iñaki Zaldua Calleja

EHU

Eusko Jaurlaritzaren kontratuarekin Doktore Tesia jorratzen. Euskal Herriko periferietako abertzaleen nortasunen egituraketa aztertzen nabil besteak beste. Adimen artifiziala eta horrek nortasunen egituraketan duen eragina aztertzen hasi gara. Mugi Muga: Euskal Herriko gazteak saretzen» (Ideiak 2024/Gipuzkoako Foru Aldundia) ikerketa-proiektuko ikertzailea.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2025-07-03 ARTE
Mugaz Gaiindiko Uda Ikastaroak	0 EUR

Kokalekua

Cité des Arts. Baiona

3 Av. Jean Darrigrand, 64100 Bayonne, Francia.

Akitania